



PRENTSA-OHARRA

Maiatzaren 28tik ekainaren 2ra, animaliak hartzeko zentroak amorraren aurkako txertaketa eta zakurren identifikazioa eginen ditu, biak ala biak legeak derrigorrezkotzat jotzen baititu

Iruñean erroldatutako pertsonak beren zakurrak eramaten ahalko dituzte astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara, eta larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara.

Iruñeko Udalak zakurrak amorraren kontra txertatzeko eta identifikatzeko udaberriko kanpaina eginen du, maiatzaren 28tik ekainaren 2ra, Iruñeko Udaleko Animaliak Hartzeko Zentroan, zeinak instalazioak estreinatu berri baititu lokalak handitu eta modernizatzeko lanak egin ondoren. Legeak nahitaezkotzat jotzen ditu bai txertoa jartzea bai identifikazioa. Zerbitzua Iruñean erroldatuta dauden pertsonen zuzenduta dago. Animaliak Hartzeko Zentroa Unibertsitateko errepidean dago, Nafarroa etorbideko zubiaren ondoan. Nafarroako Unibertsitateko errepidetik sar daiteke, Zaragozako etorbidetik etorritik gero, zubira iritsi aurretik, hain justu.

Txertoa jarri eta mikrotxip bidez identifikatzeagatik 41 euro ordaindu behar dira; zakurrak identifikatuta badaude eta txertoa soilik jarri behar bazaie, 21 euro; eta bakarrik identifikatzeko mikrotxipa jarri behar bazaie, 31 euro. Tasa horiek zentroan bertan ordaintzendira, eskudirutan edo banku-txartelaz. Aurreko urteetako kanpainei erreparatuta, aurreikusi da datozen egunetan 125 zakur inguru joanen direla mikrotxipa eta txertoa jartzera, edo txertoa berriro jartzera. Kanpainaz arduratuko diren albaitariak honako ordutegi hau izango dute arta emateko: astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara, eta larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara. Argibide gehiago nahi izanez gero, 948420996 telefonora edo 010 Herriarrendako Arreta Telefonora deitu behar da (948 420100 telefonora, mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

Animalien adopzioa, Animaliak Hartzeko Zentroko beste zerbitzu bat

Animaliak Hartzeko Zentroa 1986. urtean ireki zen, eta zentroan legeak ezarritako betekizunetara zein betekizun funtzionaltara egokitzeko hobekuntzak etengabe egin badira ere, aurreko urtean hasitako berritze-lana munta handienekoa izan da zentroa inauguratu





zenetik. Zentro honek bi eraikin zituen: bat administrazio-lanetarako eta kontsulta klinikorako, eta bestea animalien egonaldietarako. Eraikinak zakurrentzako 16 box eta katuentzako 6 kaiola zituen, eta lanei esker orain toki gehiago egongo da, eraikin modular batean, non zerbitzu hauek egongo baitira: katuen egonaldia, zakur eta katuen prebentzioko isolamendua, animalien garbiketa eta beste zerbitzu osagarri batzuk.

Era berean, Animaliak Hartzeko Zentroak aukera ematen du bere instalazioetan hartutako katuak eta txakurrak adoptatzeko. Hori egin nahi dutenek www.pamplona.es udal-webgunean kontsultatu ditzakete animalien argazkiak eta beren ezaugarrien deskripzioak; izan ere, horren atarian dago, nabarmendutakoen artean, Animaliak Hartzeko Zentroaren orrira jotzeko esteka bat., Maskotak kalean topatu direlako heldu ohi dira zentrora, askotan Udaltzaingoaren eskutik, edo jabeei kendu zaizkielako, tratatu txarrak direla-medio. Interesdunei animalia bakoitzaren gaineko informazioa ematen zaie, azaltzen zaie zer alderdi baloratu behar diren ale bat aukeratu aurretik, eta balizko adopzio-hartzaileen jarreraren balorazioa egiten da adopzioa arduratsua izan dadin, horrela zakur guztiek etxe aproposa lortuko dutela bermatuta.

NANa eta animalia identifikatzeko txartela, halakorik bada, aurkeztu behar dira

Mikrotxip bidez identifikatzeko ebakuntza eta txertaketa egiteko, animalia eraman behar dute, eta dagoeneko idenfikaturik dauden zakurrei txertoa berriro jartzeko, egoera hori egiaztatu behar dute, animalia identifikatzeko txartela erakutsita. Zakur guztiak katez edo sokaz loturik eramanen dira, eta jabeek muturrekoa jarrita eramanen dituzte, baldin eta zakurraren izaerak hala eskatzen badu edo arriskugarriak izan daitezkeen zakurtzat sailkatuta badago.

Legearen arabera, lau hilabete bete dituzten txakur guztiek derrigorrean eduki behar dute amorraren aurkako txertoa jarrita; eta Nafarroan, gehienez bi urtekoa datxertoen arteko epea. Halaber, 370/1992 Foru Dekretuaren arabera, lau hilabete baino gehiagoko zakur guztiek mikrotxip bidez identifikatuta egon behar dute. Legezko betebeharrak horiek urratzeagatik 61 eta 601 euro arteko zehapenakezar daitezke. Amorrua nerbio-sistema zentralerako gaixotasun akutua da, birus batek sortzen du, eta listuaren bidez kutsatzen da. Ugaztun askori erasaten dio, gizakiak eta zakurrak barne, eta urgentziaz tratatzen ez bada, heriotzara ere eraman dezake.

UDABERRIKO KANPAINA, ZAKURRAK AMORRUAREN AURKAKO TXERTATU ETA IDENTIFIKATZEKO

- **Noiz:** maiatzaren 28tik ekainaren 2ra. Astelehenetik ostiralera: 12:00 – 14:00. Larunbatean: 11:00 – 14:00.
- **Non:** Animaliak Hartzeko Zentroa (Unibertsitateko errepidea zk.g., Nafarroa etorbideko zubiaren ondoan. Zaragozako etorbideetik sar daiteke).
- **Prezioa:** txertoa jartzea, 21 euro; mikrotxip bidez identifikatzea, 31 euro. Txertoa jartzea eta mikrotxip bidez identifikatzea: 41 euro.





- **Norentzat:** txakurrak dituzten Iruñeko biztanleak, izapidea derrigorrezkoa baita 4 hilabete baino gehiagoko animalientzako.
- **Argibide gehiago:** 948420996 telefonoanedo 010 Herritarrendako Arreta Telefonoan(948420100 telefonora, mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean 2018

